Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Jesusita Manterola Larrañaga

Getaria, Gipuzkoa (1922)



Aurkibidea

Biografia



Getariako San Roke kalean jaio zen bost senideren artean hirugarren. Gurasoak getariarrak zituen: aita Getaria eta Zarautz arteko korreo-zerbitzuaz arduratzen zen; ama, berriz, jostuna zen. Jesusitak zazpi urte besterik ez zituela, aita hil zitzaion eta amak atera behar izan zuen aurrera familia. Getariako eskolan ikasia, hamaika urterekin salazoi-fabrikan hasi zen lanean. Ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen, baina haurrak oso txikiak zirela oraindik, alargun geratu zen.

Zintak

GET-028

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2010-09-29
- **Iraupena**: 85 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Aitaren lana Zarautz eta Getaria arteko korreoan

- **Erref**: GET-028/002
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:01:38. **Bukatu**: 00:03:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Aitak Zarautz eta Getaria arteko korreo-zerbitzuan egiten zuen lan. Bulegoan egiten zuen lan, baina gazte hil zen.

2. Amari laguntzeko, 11 urterekin lanean hasitakoa

- **Erref**: GET-028/004
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:03:57. **Bukatu**: 00:05:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak

Laburpena:
Aita 41 urterekin hil zen, eta bost seme-alaba txiki utzi zituen. Jesusitak gazte hasi behar izan zuen lanean amari laguntzeko. 11 urte zituenerako, langile finkoa zen antxoa-lanean. Antxoa-lanean zer egiten zuten azaltzen du. Eskolan 11 urtera arte ibili zen.

3. Gazitze-fabrika eta botikaria

- **Erref**: GET-028/007
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:08:56. **Bukatu**: 00:10:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Itsasoa » Lehorreko lanak

Laburpena:
Amak gazitze-fabrikan egiten zuen lan. Gazitze-fabrikan zer egiten zuten azaltzen dute. Eskuak zartatzen zitzaizkienean don Federiko botikariak prestatzen zien botika.

4. Getariako ume osasuntsuak

- **Erref**: GET-028/008
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:10:26. **Bukatu**: 00:11:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Gazteak zirela, Getarian don Leontzio medikua izan zuten. Kostako umeak indartsuak eta sasoikoak zirela esaten zuen mediku hark.

5. Getariako eskolan ikasitakoak

- **Erref**: GET-028/009
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:11:39. **Bukatu**: 00:14:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Maisu-maistrak Burgoskoak ziren. Eskola non zegoen azaltzen dute; neskak bakarrik joaten ziren beren klasera. Eskolan hainbat gai ikasten zituzten, baina beren ustez ez zuten behar bezala ikasi.

6. Eskolako bizimodua eta janzkera

- **Erref**: GET-028/011
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:14:54. **Bukatu**: 00:17:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Maisu-maistrak gustura bizi ziren Getarian, baina ez zuten euskaraz hitz egiten ikasi. Herritarrak moldatzen ziren gaztelaniaz hitz egiteko. Eskolako ordutegia nolakoa zen azaltzen dute. Eskolarako perkalezko bata eta alpargatak janzten zituzten.

7. Umetako jolasak: sakaponak, potorro-potorro eta panpinak

- **Erref**: GET-028/012
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:17:38. **Bukatu**: 00:20:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetan zertara jolasten zuten aipatzen dute: sakaponetan, potorro-potorroka... Panpinak amak josten zizkien. Sakaponetan arkumeen hezurrak erabiltzen zituzten, etxean arkumea jaten zenean gordetakoak. Antxumearen hezurrak ere erabiltzen zituzten.

8. Umetako jolasak: kukuka, sokasaltoa eta diaboloa

- **Erref**: GET-028/014
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:20:49. **Bukatu**: 00:22:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetan kukuka ibiltzen ziren neskak eta mutilak denak batera. Sokasaltoan eta diaboloarekin ere ibiltzen ziren. Diaboloan abilak ziren.

9. Sokasaltoko kantak

- **Erref**: GET-028/015
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:22:09. **Bukatu**: 00:23:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Sokasaltoko kantak abesten dituzte. Kanta haiek gaztelaniaz izaten ziren.

10. Abesti elebiduna

- **Erref**: GET-028/016
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:23:12. **Bukatu**: 00:25:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Euskara eta gaztelania nahasten dituen kanta bat abesten dute.

Transkripzioa
- Raimunda: Euskaldun kanta asko dazkiu, baiño...
- Bai?
- R.: Euskaldunak, bai, kantak.
- Aber, ze kanta dakizkizue? Bota kantak. Lehenoko kantak. Leheno ze kantatzen zan?
- Jesusita: Hainbeste kanta kantatzen giñuzen...!
- Kororen baten ibili al zeate?
- J.: Ez! Orduan ez giñun koroikan!
- R.: "En la época...", hik badakin "En la época de invierno"?
- J.: Bai, hori bai.

En la época de invierno
Getari honetan,
se ve muy poca gente
gabaz tabernetan.
Se ve que no hay dinero
gure patriketan,
a la madre pidiendo
beti errietan.

Y yo digo francamente
arrazoiarekin
cuando no hay pescado
kabra txuriakin
cogidos con el anzuelo
tollen gibelakin
se hace buen guisado
patata birekin.

Somos afiladores
patrika hutsakin,
vamos a la Artzape (moilla)
kutxilluarekin.
[Hay petriles] gastado
ofizio honekin,
se afila suavemente

txistu pixkatekin.

- J.: Ze nahi dezu gehidxo?
- Gehio ba al dauka?
- [...].
- Oso ona! Zer da euskeraz ta erderaz?
- J.: Akordatzia´re gitxi dala uste al dezu?
- R.: Ta dana kantatu! Dana. Ez! Azkenengua:

He sacado ocho versos
broman pasatzeko
en la cuadrilla de [...]
danok kantatzeko
para olvidar las penas
alegre jartzeko
siempre los de [...]
danok kantatzeko.

- J.: Hoidxek, hoidxek... asmatu zituen!

11. Biak abesten

- **Erref**: GET-028/017
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:25:32. **Bukatu**: 00:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Euskal kanta bat abesten dute. Gurasoengandik jaso zituzten abesti horiek.

12. Kantu-kantari

- **Erref**: GET-028/018
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:28:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Zenbait kanta abesten dituzte.

13. Lehen arrantza gertu egiten zen

- **Erref**: GET-028/022
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:34:11. **Bukatu**: 00:35:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:
Normalean Agustinaren aita bere kontura ibiltzen zen arraina harrapatzen bazter-arrantzan. Lehen ez zen arrunta arrantzaleek egun asko ematea kanpoan arrantzan. Behin Jesusitaren osaba kanpoan ibili zen arrantzan, eta eskumuturrekoa ekarri zion oparitan Gijondik.

14. Arraina saltzera Zumaiara baldea buruan hartuta

- **Erref**: GET-028/023
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:35:47. **Bukatu**: 00:38:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Agustinaren ama arraina saltzen ibiltzen zen. Getariatik Zumaiara joaten zen oinez goizean goiz 20-25 kiloko baldea buruan hartuta arraina saltzera.

15. Eskolatik gazitze-fabrikara

- **Erref**: GET-028/025
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:38:52. **Bukatu**: 00:40:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
7 urterekin antxoa-lanean aritzen ziren, eta antxoarik ez zenean, eskolara joaten ziren. 11 urte zituztela, gazitze-fabrikan langileak behar ziren eta beraiek sartu ziren. Zer lan-baldintza zituzten azaltzen dute.

16. Gosea ez pasatzeko baliabideak izandakoak

- **Erref**: GET-028/026
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:40:31. **Bukatu**: 00:42:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Goserik ez zuten pasa, bazutelako janaria nondik lortu: batzuek baratzetik, besteek mahastietatik, eta besteek itsasotik. Olioa erosi egin behar izaten zuten, eta ondo zaintzen zuten zenbat gastatzen zuten. Ogia erosteko jendea nola moldatzen zen azaltzen dute. Beraiek etxean ez zuten ogirik egiten; bai, ordea, taloak.

17. Lanean hasteko grinagatik eskola utzi

- **Erref**: GET-028/027
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:42:25. **Bukatu**: 00:44:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
11 urterekin eskola utzi zuten lanera joateko. Agustinaren amari maistrak esan zion Agustinak ikasten jarraitu beharko lukeela, buru ona baitzuen. Baina Agustinak ez zuen nahi ikasi, eta uko egin zion baita gauez klase partikularretara joateari ere. Lehen erraz uzten ziren ikasketak lanean hasteko.

18. Gurasoei jornala emateko poza

- **Erref**: GET-028/028
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:44:31. **Bukatu**: 00:46:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:
Gaztetan mutil batzuekin hizketan zeudela, ama etorri eta Raimundak asteko jornala eman zion erosketak egiteko. Lehen pozik ematen zitzaion jornala gurasoei.

19. Gurasoei errespetu handia zitzaien

- **Erref**: GET-028/029
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:46:26. **Bukatu**: 00:50:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Mutilekin asteburutan egoten ziren. Gauean etxera joateko zer ordutan itzuli behar izaten zuten aipatzen dute. Agustinak zenbait plan prestatu zituen aitak gauez irteten utz ziezaion, baina ez zuen arrakasta handirik izan. Lehen

gurasoei errespetu handia zitzaien, eta haien artean ere ez zioten elkarri kontrakoa esaten.

20. Gaztetan mutilekin nola ibiltzen ziren

- **Erref**: GET-028/030
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:50:39. **Bukatu**: 00:53:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gauean musika izaten zenean, mutilek ordaintzen zieten neskei ur goxoa. Lehen mutilekin beste era batera erlazionatzen ziren, eta gaur egungo moduari buruzko iritzia ematen dute. Mutilekin dantza lotua egitea bekatua zenez, zigortu egiten zituzten neskak kongregazioan, eta batzuetan baita etxean ere. Hala ere, gurasoei beti errespetua zitzaien.

21. Plazako komediak ikustera pozik

- **Erref**: GET-028/031
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:53:13. **Bukatu**: 00:54:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Plazan komediak izaten ziren, eta denak egoten ziren hari begira aulkietan eserita.

22. Batzuen askatasunari esker, besteen jakinmina ase

- **Erref**: GET-028/032
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:54:15. **Bukatu**: 00:56:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Raimundari askatasun handia ematen zioten gaztetan. Gurasoek errespetua nola lortzen zuten aipatzen dute. Raimundari gauez ere irteten uzten ziotenez, gero lagunek galdetzen zioten izandako gorabeheren berri.

23. Raimundaren mutil-lagunak

- **Erref**: GET-028/033
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:56:05. **Bukatu**: 00:58:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Zarauztik etortzen zitzaizkion Raimundari mutilak ate joka. Zarauzko beste mutil batekin ere ibili zen Raimunda, eta fabrikara etortzen zitzaion bisitan gorbata jantzita. Baina azkenean, senarra getariarra aukeratu zuen.

24. Mutil-laguna etxean sartzeko pausoa

- **Erref**: GET-028/034
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:58:43. **Bukatu**: 00:59:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Mutilekin ateratzen zirenean nola izaten zen azaltzen dute. Senargaia etxean aurkeztutakoan, laster zen ezkontza.

25. Jesusitaren senar alemaniarra eta haren familia

- **Erref**: GET-028/035
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:59:43. **Bukatu**: 01:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Jesusitaren senarra Alemanian jaioa zen, familia alemaniarra zuen, baina Zumaian bizi zen. 6 urte bizi izan ziren ezkonduta, senarra lan-istripuan hil zen arte. Bi ume txikirekin gelditu zen Jesusita. Ordutik ez da berriro ezkondu. Senarraren familiak elizarekin izandako harremana azaltzen du Jesusitak.

26. Bizikletan batera eta bestera

- **Erref**: GET-028/038
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 01:04:33. **Bukatu**: 01:07:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Bizikletan ibiltzen ziren, baina alokairukoan. Lehen trafiko gutxiago zegoen. Bizikletan txangoak nondik egiten zituzten azaltzen dute. Mutilen bizikletan ikasi zuten bizikletan ibiltzen. Behin Agustinak bizikletarekin anis botila bat puskatu zion lagun bati, eta berria ordaindu behar izan zion.

27. Euskal dantzetarako mutilen bila

- **Erref**: GET-028/039
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 01:07:30. **Bukatu**: 01:08:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Euskal dantzak egiteko, neskek mutilen bila joan behar izaten zuten, nahiz eta lotsa eman. Lehen orain baino auto gutxiago ibiltzen ziren errepidean.

28. Gerra nabaritu ez Getarian

- **Erref**: GET-028/040
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:08:42. **Bukatu**: 01:10:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Getarian ez zuten gerra nabaritu; janzkeran bakarrik antzematen zen bandoak zeudela. Getariako mutil gazteak gerrara eraman zituzten, eta Agustinaren anaia hil egin zen hala.

29. Gerraostean goserik pasa ez

- **Erref**: GET-028/041
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 01:10:08. **Bukatu**: 01:11:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Gerraostean ez zuten goserik pasa. Ogia eramaten zuten gazitze-fabrikara, eta antxoa jaten zuten bertan. Olioa nola lortzen eta gordetzen zuten azaltzen dute.

30. Umeak izateko zainketak eta abenturak

- **Erref**: GET-028/044
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 01:13:50. **Bukatu**: 01:16:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
4 ume izan zituen Agustinak; Raimundak 4 izan eta 2 bizi; eta Jesusitak 2. Haurdun zeudenean lehen ez ziren medikuarengana joaten umea izan arte.

Agustinak bikiak izan zituenean sorpresa hartu zuen, ez baitzekien bi zetozenik.

31. Balea zeinek harrapatu?

- **Erref**: GET-028/046
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 01:17:52. **Bukatu**: 01:19:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Ugaztunak

Laburpena:
Jesusitaren aitona izan zen balea harrapatu zuten arrantzaleetako bat. Getariak, Zarautzek eta Oriok kontu hartan zer parte izan zuten azaltzen dute. Gaur egun, balea haren hezurrak Donostiako aquariumean daude.

32. `Ixil-ixilik´ kanta

- **Erref**: GET-028/048
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 01:21:46. **Bukatu**: 01:24:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Hirurek `Ixil-ixilik´ kanta abesten dute.

Transkripzioa
Ixil-ixilik nago, kale barrenian
ontzi txuri polit bat uraren gaiñian.

Goizeko ordu bietan, esnatutzen gera
arrantzaliarekin joateko urrutira.

Zergatik, zergatik, zergatik, zergatik?
Zergatik negar egin?
Zeruan izarra dago, itsaso aldetik. (bis)

Bat, bat bat, bart parrandan ibili
bart parrandan ibili;
Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili
ez naiz ondo ibili;
Hiru, hiru, hiru, kolkua bete diru,
kolkua bete diru;
Lau, lau, lau, sardiña bakalau.

Anteron txamarrotia,
[Txingarren] bibotia,
haretxek ez daka, ez daka
preso Euskal Herria.

- Jesusita: Ez zekiñat ondo esan den hori.
- Raimunda: Nik bai zakiñat ondo!
- Oso ondo! Oso ondo! Bi ahotsetan ta dana in dezue.
- Agustina: A! Nahi degun eran! [...] Gaztetasunian gaztiak bezela, ta oan ertentzen digun eran.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com